

Ordizian, 2016ko otsailaren 8an, udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras
Igor Eguren Izagirre
Mila Sukia Galparsoro
Iñaki Dubreuil Churruca

EAJ/PNV
EH Bildu Ordizia
Ordizia Orain
PSE-EE (PSOE)

Gonbidatu gisa azaldu da baita ere IRABAZIren ordezkaria den Carlos Gonzalez Astiz.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2016ko urtarrilaren 25eko batzordeko akta onartzea.
- 2.- Fakturak.
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.

GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIK:

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:00



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2016ko urtarrilaren 25eko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko urtarrilaren 25eko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- Faktura zerrenda.

Bertaratu direnei informazioa eman zaie eta fakturen kopiak banatu zaizkie.

Idazkariak jakinarazi du dirudienez fakturak ezin izan direla bidali elektronikoki arazo informatikoren bat dagoelako eta momentuz ezin izan da arazoa konpondu.

Batzordeko kideek adierazi dute arazoa ezin bada konpondu, gutxienez fakturak PDFn bidali zitezkeela eta horrela papera saihestu.

Fakturen aldeko irizpena eman da.



3.- Txostenak eta hainbat eskari.

Alkate jaunak aurreko asteartean Hondakinen Mahaiak izandako bileraren berri eman du.

Adierazi du azkeneko bilera honetan giroa desberdina zela, hobea. Bihar berriro egingo du bilera Mahaiak kontsultaren data adosteko eta zehazteko; eta aurrera eramango den dibulgaziozko prozesua, prozedura eta egin beharreko galdera zehazteko. Biharko bileran gai hauek guztiak begiratu eta aztertuko dira.

Sukia andreak esan du hizkuntzaren gaiak kezkatzen duela. Adierazi du harremana euskaraz izateko eta euskaraz adierazteko eskubidea hor dagoela; baina aldi berean, euskaraz ez dakitenei eztabaidatzen denaren eta esaten denaren ezagutza izatea bermatu behar zaiela.

Alkate jaunak esan du bilerak elebitan egiten dituztela. Hitz egiten duen guztiek beraiek hautatutako hizkuntzan hitz egiten dute baina itzultzen edo behintzat interbentzioa laburtzen saiatzen da.



Moreno andreak gauza bera esan du, gauzak hobeto doazela.

Gonzalez jaunak esan du une honetan arazoa ez dela hizkuntza, baizik eta pertsona batzuek egiten dituzten keinuak eta imintzioak.

.....

Alkate jaunak aurrekontu partehartzaileei buruzko informazioa eman du.

Adierazi du datorren astean auzoetako bilerekin hasteko asmoa duela. Horrekin batera ordiziar guztiei gutuna bidali nahi die postontzietara Udalaren datu ekonomikoei buruzko informazioa emanez.

Gonzalez jaunak aurrekontuen zirriborroaren kopia eskatu du informazioa bidali baino lehen.

.....

Dubreuil jaunak udal Kontuhartzailearen jubilazioari buruzko informazioa eskatu du eta lanpostua betetzeko jarraituko den prozeduraz.

Idazkariak jakinarazi dio bere erretiro aurreratua hartzeko eguna 2016ko irailaren 22a dela. Horrekin batera hutsik geratuko den lanpostua betetzeko jarraituko den prozedurari buruzko informazioa eman du.

.....

Alkate jaunak jakinarazi du Foru Aldundiko Bizikidetza Zuzendaria den Maribel Vaquerok proposatu diola Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiekin bilera egitea datorren ostegunean, otsailak 11, 12,30ean. Agendak begiratu ondoren, bertaratuek ez dute arazorik proposatutako egunarekin baina bilera hasteko ordua atzeratzeko proposamena egin da, 13,00etan hasteko.

.....

Sukia andreak galdetu du osoko bilkuren grabaketarena nola doan.

Alkate jaunak erantzun dio esanez horretarako aurrekontu partida badagoela eta hurrengo osoko bilkurarako zorte pixka batekin konponduta egongo dela espero du.



4.- Galde-eskeak.

Ez dago.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.